BITARAKO ADIZKERAK

AGINTE-ERA

Aditzaldi onetan be ba-dagoz bitarako adizkera batzuk. Ona emen:

Puxana'k:	eroan BEIZUE	1.ª llēvenlo ellos a V. 2.ª Bevel() el a vosotros

Azkue'k: BEIZUE ta BEITZUE, bietara.

Zelan banandu emen esanaiak? 2.ª BEIZUEE edo BEITZUEE eginda? Baiña azken oneik beste esanai bat dabe: llēvenlo ellos a vosotros.

* * *

Beste adizkera bat: **Arei zerbait** eroan (NOR-NORI-NOK)
Emen be bitarako adizkera bat agertzen da:

Azkue'k		llēvenlo ellos a el
eta	eroan BEIOE	
Puxana'k		Bevel() él a ellos

Aurrekoetan egin doguna *egin* daikegu emen *be:* **Ari** esateko, 0 aditz-atzizkia erabili; era ***arei*** esateko, **OE** erabili bearrean, **E** erabili, Villasante'k dakarrenez (mako-barruko-etakoak izan ezik):

AREI
(nik eroan DA(G)IEDAN edo DA(G)ITSEDAN)
zuk " E(G)IEZU
arek " BE(G)IE = BE(G)ITSE («areik zerbait eroan» be BE(G)IE da-ta)
(guk " DA(G)IEGUN edo DA (G)ITSEGUN)
zuek " (E(G)IEZUE
areik " BE(G)IEE (Puxana'k emen EIOEE dakar, baiña irar-utsa da).

Urrengo zenbakian beste zerbait.

KEREXETA

INTXAUSTI'tar ARTURO ERESLARIA

— Begoñan, jaioa orain 90 urte.
— Euskalerrian eta inguruan ereslaririk onenetarikoa.
— Urte askotan Bilbo'ko eskoletako eres-arduradun.
— Bilbo'ko Abes-Batzaren zuzendaria.
— Bilbo'ko Eres-Etxeko Irakasle.
— San Anton'en 60 ortetan organu-jotzaille.
— Eresgille ona: Euskeraz naiz latiñez mezak, abesti asko, sei gabon-abesti bigun...
— Eres-Txapelketetan maiko edo epaille.
— Euskal-kutsuzko abesti eder askoren artean «Bego=ña'ko Andra Mari, Bizkai'ko Zaindari» dau berea.
— Guridi, Zubizarreta ta antzekoen kidekoa.

OMELDIA IZANGO DAU
LASTER